

Kablerik gabe Internetera konektatuta

Joana Mendiburu Garaiar

Elhuyar

Ordenagailu eramangarren merkatua zabaltzen ari da. Baina zertarako erosi ordenagailu eramangarria Internetera konektatzeko etxeko edo lantokiko bulegoan jarrita egon behar badugu? Wireless area sistemari esker arazo hori gaindituta dago, eta Euskal Herrian gainditzen lehena EHUko Donostiako Informatika Fakultatea izan da.

DONOSTIAKO INFORMATIKA FAKULTATEKO IKASLEEK, jada ez dute liburutegian edo laborategian sartu eta ordenagailu eramangarria entxufatu beharrik Interneten nabigatu ahal izateko. Nahikoa dute fakultatean bertan txartel bat eskuratzea konektatu ahal izateko. Horrela, eguraldi onak baliatuz, fakultateko belardian bertan lan egin dezakete lasai-lasai. Eta hori guztia fakultateak eta fakultateko Informatika Zerbitzuak (CIDIR) abian jarritako proiektuari esker. Proiektu pilotua da.



J. MENDIBURU GARAIAR

“Informatika Fakultatean hiru atzipen-puntu instalatu dituzte”

Wireless area sistema

Proiektuaren zuzendari Pello Sanchez-en hitzetan, “telefono mugikorren sistemaren oso antzekoa da. Hainbat tokitan atzipen-puntuak instalatzen dira eta, oztoporik ez dagoen lekuan, 150 metroko erradorako balio dute. Oztupoen arabera, eremu hori murriztu egiten da”.

Ordenagailutik atzipen-puntura doan informazioa irrati-frekuentzia bidez transmititzen da, eta atzipen-puntu bakoitza datu-sarera kable bidez konektatuta dago, ordenagailu bat gehiago bailitzan. Oraingoz, Informatika Fakultatean hiru atzipen-puntu daude; fakultateko sarrera, liburutegia eta ikasgelak dauden Barriola eraikuntza. Horrela, fakultateko sarreran, kafetegian, liburutegian, 24 orduetan zabalik dagoen ikasgelan eta fakultate kanpoko zenbait puntutan dago sistemaz baliatzeko aukera.

Atzipen-puntu bakoitzak 68.000 peze-ta balio du, eta segundoko 11 Mb transmiti ditzake. 11 megabit horiek

konektatuta dauden erabiltzaileen artean banatzen dira eta, beraz, atzipen-puntura zenbat eta erabiltzaile gehiago konektatu, orduan eta geldoago ibiliko da. Atzipen-puntu bakoitzera hamar erabiltzaile konektatzea gomendatzen da, baina atzipen-puntuak gehituta gaindi daitezke muga horiek.

Ordenagailu eramangarria atzipen-puntura konektatzeko, esan bezala, ordenagailuan txartel bat sartzen da. Txartel bakoitzak 28.000 pezeta balio du. Pello Sanchez-ek zehaztu duenez, "lehen aldiz erabiltzean, bakarrik instalatzen den CD-Rom-a prestatzen diegu". Hortik aurrera nahikoa da txartela sartzea.

Teknologiaren izena 802.11 b da, eta 802.3 Ethernet motako sare lokalen komunikazio estandarren bariazio bat da. Bariazio horrek sare lokal batean haririk gabe lan egitea ahalbidetzen du.

802.11 a teknologia ere jadanik garatuta dago, baina oraindik ez da erabiltzen, lizentzien banaketa ez baitago egina. Sistema hori askoz azkarrago ibiliko da: 11 Mbs-ko abiaduratik 50 Mbs-kora pasatuko da, hain zuzen ere.

Erabilera bat baino gehiagoko sistema

Proiektu pilotua ikasleei zuzenduta dago oraingoz, baina beste erabilera batzuk ere izan ditzakeela dio Pello Sanchez-ek. "Adibidez, ia eraikuntza guztietan dago Internetera kable bidez konektatzeko aukera, baina ez guztie-

Ikasle eta irakasleentzat Apple-ren ordenagailu berria

Apple-k, hezkuntzako merkatua bereganatu nahian, iMac-aren antzekoa baina merkeagoa den eMac berria merkaturatu du.

eMac-ak 999 dolar inguru balioko du. Ezaugarriak: 7.000 Mhz Power PC G4 prozesagailua, 40 GB-eko disko gogorra, 128 MB-eko memoria eta 17 hazbeteko pantaila.



Apple-ko arduradunek jakinarazi dute iMac-aren pareko ordenagailua dela —baina ez du pantaila laua— eta irakasle, ikasle eta hezkuntza-instituzioek soilik eskuratu ahal izango dutela. Ordenagailu berriari esker, Apple-k garai batean hezkuntzan zuen arrakasta berreskuratu nahi du.

Horrez gain, sagarrak PowerBook G4 ordenagailu eramangarriaren bi bertsio berri merkaturatzeko puntuan dagoela ere jakinarazi du. Batak 800

MHz-eko prozesagailua izango du eta 199 dolar inguru balioko du; bestea, berriz, 667 MHz-eko txipa duena, 2.499 dolarretan salduko da.

"atzipen-puntu bakoitzak segundoko 11 Mbit transmititzen ditu"

diak ematera etortzen diren kanpoko irakasleentzat ere zerbitzu bat gehiago izango da. Beren ordenagailutik, txartela sartu eta inongo oztoporik gabe erabili ahal izango dute beren posta, adibidez".

Pello Sanchez-en arabera, oraindik goiz da zein erantzun izango duen esateko, eta zerbitzuaren berri ahoz aho zabaldu arte itxaron behar da. Dena dela, badaki ikasle guztiek ez dutela ordenagailu eramangarri bat eta, beraz, zerbitzu horren beharra neurtu egin behar dela. Zerbitzua hedatu behar dela ikusiz gero, fakultateko beste eraikuntzetara zabalduko da eta fakultateko lorategiak ere estalduraren barruan egongo dira. Oraingoz sei txartel daude fakultatean, eta bi edo hiru egon ohi dira okupatuta.

Europa-mailan, berriz, arrakasta lortzen ari den sistema da. Azken zenbaketan, European 40.000 atzipen-puntu kontatu ziren eta 2005erako 90.000 puntu egotea espero da. Gehienbat liburutegietan, museoetan, kultur-geletan, aireportuetan, ostatu, etab.-etan zabaltzen ari da. □

tan. Gainera, ordenagailua jarri nahi den lekutik gertu hartunerik ez bada, sistema erosoan izan daiteke. Bestalde, lanak direla medio denbora batez Internetarako kable bidezko konexioa moztuz gero ere, eragozpenak gutxitzen lagunduko du. Azkenik, hitzal-

Pello Sanchez ordenagailu eramangarri batean Internetera konektatzeko txartela sartzen.

